

Nafarroako Hezkuntza Publikoko sindikatu guztiok (STEILAS, ANPE, AFAPNA, LAB, CCOO, ELA eta UGT) bat egin dugu irailaren 26an greba eguna deitzeko.

Denbora luzean Hezkuntza Departamentuarekin aldarrikapen horiek negoziatzen saiatu gara, eta gure borondate onenarekin parte hartu dugu proposatu zaizkigun lan talde guztietan. Hezkuntza Departamentuaren erantzun eskasa ikusita, aho batez erabaki dugu mobilizazio egun bat deitzea sindikatuen eta Nafarroako Gobernuaren artean benetako negoziazio bat hasteko.

Irakaskuntza publikoko ikasleek merezi duten arreta jasotzeko mobilizatzen gara irakasleok. Hau da, Nafarroako gizarteari eskaintzen diogun zerbitzu publikoaren kalitatea hobetu nahi dugu. Inork zalantzan jartzen al du ratioen jaitsierak, lan gainkarga arintzeak eta irakasle-plantilla egonkorragoak izateak ez dietela mesederik egingo gure ikasleei eta hezkuntza komunitate osoari?

Egun batzuk igaro dira greba deialdia publiko egin genuenetik eta, ez Hezkuntza Departamentua ezta Nafarroako Gobernua ere ez dira sindikatuarekin harremanetan jarri. Horregatik, atzo erregistratu genuen Greba Batzordearen eta María Chivite lehendakariaren arteko bilera bat egiteko eskaera, eta benetako negoziazio baterako prest gaudela adierazi genuen.

Bitartean, egingo diren mobilizazioen berri ematen dugu:

-Ikastetxe publiko guztiak bisitatzen ari gara, dozenaka batzar eginez eta aldarrikapenak milaka irakaslerekin partekatuz. Eta, esan dezakegu, aldarrikapenak aho batez babesten ari direla.

-Era berean, bihar, irailak 19, arratsaldeko 17:30etan, batzarra egingo dugu San Frantzisko Ikastetxe Publikoko areto nagusian, irakasle guztiei zuzenduta.

-Irailaren 26an, osteguna, kalean mobilizatuko gara, eta agerian jarriko dugu irakasleen ezinegona Nafarroako hezkuntza publikoaren egungo egoeratik.

Horretarako, irakasleak irailaren 26an egingo ditugun mobilizazioetara deitzen ditugu: goizeko 11.00etan Altsasun, Elizondon, Lizarran, Iruñean, Tafallan eta Tuteran egingo ditugu kontzentrazioak. Halaber, arratsaldeko 18:00etan Gurutze enparantzatik abiatuko den manifestaziorako deia egiten dugu, eta gizarte osoari bat egiteko gonbitea luzatzen diogu.

AHORA DOCENTES. GURE TXANDA DA.

STEILAS - ANPE - AFAPNA - LAB - CCOO - ELA - UGT